

4. IKASGAIA. BALTZUEN ZUZENBIDEA

KAPITALEZKO BALTZUAK. AKZIOAK ETA PARTIZIPAZIOAK

1. KAPITALAREN ZATI BEZALA

2. AKZIO/PARTIZIPAZIOA ESKUBIDE BEZALA

3. AKZIOA BALORE NEGOZIAGARRI BAZALA

4. PARTIZIPAZIOEN ESKUALDAKETA

AKZIOAK ETA PARTIZIPAZIOAK

Sarrera

Hiru ikuspegi aztertu behar ditugu bai akzio bai partizipazio kontzeptuak azaltzerakoan. Alde batetik sozietatearen kapitalaren zati alikuota bat ordezkatzeko dute, bestetik titulodunari bazkide izaera ematen diote, eta honekin batera hainbat obligazio eta eskubideren titulodun egiten dute, eta azkenik trafikoa dagoen ondasun bat dira, balore negoziagarria akzioen kasuan.

1. KAPITALAREN ZATI BEZALA (*zatiezinak eta metagarriak*)

4.1. Balioa

Legearen esanetan beharrezkoa da erantzukizun mugatuko baltzuetan kapital soziala partizipazioetan banatzea eta baltzu anonimoetan berriz akzioetan. Gainera, akzio/partizipazio bakoitzak kapital sozialaren zati proportzional bat (*parte alícuota* - 90. art.) eratuko du.

Akzio/partizipazioek zenbateko aritmetiko bat daukate, hots, kapitalaren azpimultiplo bat, zeina eurotan adierazita egon beharko duen. Honi, bazkideak egin beharreko ekarpenari, **balio izendatua** deritzogu. Printzipioz, akzio/partizipazioen balio izendatua ezartzea librea da. Legeak ez du mugarik ezartzen baina bai agintzen du balore izendatu hori ager dadila estatutuetan edo, bere kasuan, akzioen tituluetan eta behin-behineko ziurtagirietan, aldiz, kontu idazpenen bidez -anotaciones en cuenta- ordezkatuak daudenean akzio horiek igorri diren kontratuan agertu beharko dira. Balio izendatua ez da aldatuko ez bada kapitala gehitzen edo murrizten balio hori aldatuz.

Praktikan ohikoa izaten da, anonimetan batez ere, balio izendatua zenbateko baxuen (1€, 2€ ...) bitartez ezartzea euren zirkulazioa eta eskualdagarritasuna errazteko.

Aipatutako balio izendatua normalean ez da bat etortzen akzio/partizipazioen balio errearekin. **Balio erreala akzio/partizipazio bakoitzari dagokion baltzuaren ondare zatia adierazten diguna da.** Ezagutu behar da bazkide batek baltzua uzten badu dagokion konpensazio finkatzeko edo izango da baita desegite eta kitapen kasuan akzio/partizipazio bakoitzari dagokion kitapen kuota. Honek adierazten digu obekien akzio/partizipazioen benetako balore ekonomikoa momentu bakoitzean.

Azkenik **merkatuko balioa** dugu. Balio honek adierazten digu bazkideek zein prezioetan negoziatzen edo eskualdatzen dituzten akzio/partizipazioak, hau da akzio/partizipazio horiengatik lortu daitekeen zenbatekoa. Kotizatutako baltzuetan merkatuko balio **burtsako balioa** izango da.

4.2. Kapitalaren babespena akzio/partizipazioak jaulkitzerakoan

Legeak dioenez (59.art.) ezin dira sortu partizipazioak edota ezin dira igorri akzioak euren balore izendatuaren azpitik; bestalde akzio/partizipazio "liberatuak"/dohaineakoak deusezak dira. Hau da, lortu nahi dena da akzio/partizipazio bakoitza bere balore izendatuarengatik biderkatzean kapital sozialaren zenbatekoa lortzea.

Esan bezala, akzio/partizipazioak ezin dira igorri euren balore izendatuaren azpitik, baina, aldiz onartzen da euren igorpena primarekin (298.1. art.). Hots, primaren bitartez akzio/partizipazioengatik euren balore izendatua baino gehiago ordainduko da. Prima horrek erreserba berezi bat eratuko du, ez du kapitala osatuko.

Primaren bitartez egindako igorpena onartzeak baltzuaren ondarea sendotzea dakar. Prima hori baltzuaren eraketan eman daiteke baina ohikoena kapital hazkundeetan ematea da. Izan ere, kapital gehikuntzetan lehendik zeuden akzio/partizipazioen balorearen jeistea ekidin nahi da

akzio/partizipazio berrien sartzearen aurrean. (akzioen “ureztatzea” bezala ezagutzen dena¹).

2. AKZIO/PARTIZIPAZIOA ESKUBIDE BEZALA

Akzio/partizipazioen legezko titulodun izateak bazkide estatusa dakar berekin eta era berean Legeak zein estatutuak horientzako aurreikusitako eskubideak.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, akzio/partizipazioen titulodunek gutxiengo eskubide batzuk dauzkate aurreikusita. Eskubide hauetaz gain legeak ere jasotzen ditu bestelako eskubide batzuk. Zerrendatzen diren eskubide horiek ez dira absolutuak, izan ere, eskubideen hedadura edota baldintzak Legeak dionari jarraikiz ezarriko dira.

Bestalde, historikoki kapitalezko baltzuen akzio/partizipazioak berdintasunean oinarritzen zirela adierazten bazen ere egun egoera oso bestelakoa da. Une oro sortzen diren beharrei erantzuteko asmoz eskubide desberdinak eskeintzen dituzten akzio/partizipazioak, modu honetan, bazkideen interes desberdinak asetuz.

Egun aipatutako berdintasun printzipioa akzio/partizipazio mota bakoitzaren eremuan ematen da. Honela, Legeak onartzen du mota desberdinetako akzio/partizipazioak igortzea. Talde berekoak izango dira eskubideen eduki bera duten akzio/partizipazioek. Ondorioz, talde berekoek eskubide berak eskeini behar dituzte nahiz eta onartzen den talde beraren baitan serie desberdinak egotea (serie hori osatzen duten akzio/partizipazioek balio izendatu bera izan beharko dute - 94.1 art.).

Akzio/partizipazioek eskeini ditzaketen eskubide desberdinak ikusita, *ohiko akzio/partizipazio eta akzio/partizipazio pribilegiadunez hitz egin genezake*. Lehenengoek bazkide izateak dakartzan eskubideak dituzte, bigarrengoek berriz, abantaila edo pribilegio bereziak dakartzate ohiko akzio/partizipazioekin alderatuta (94.2 art.).

¹ Ikus kontzeptu honi buruz VELASCO, “El derecho de suscripción preferente”, AAVV, *Derecho de Sociedades Anónimas III*, 1994, 522. o.

2.1. Bazkideen gutxiengo eskubideak (93. art.)

Arestian aipatu bezala Legeak ezartzen dituen mugen barruan bazkideek gutxiengo eskubide batzuk dituzte. Eskubide horiek **bi kategoriatan sailka** daitezke; *izaera ekonomiko-patrimonialeko eskubideak (a/b) eta izaera politiko eta funtzionaleko eskubideak (c/d)*. Hona hemen bazkide orok dituen gutxiengo eskubideak:

a.- Irabazietan parte hartzeko eta kitapen kuota jasotzeko eskubidea.

Bazkidearen lehen interesa asetzen duten eskubideak dira. Eskubide hauen bitartez bazkidea babesten da akordio bitartez irabazietatik baztertua izan ez dadin. Modu honetan, zenbait onuren banaketa ematea adosten denean bazkideak eskubidea izango du bere akzio/partizipazioen arabera dagozkion dibidendoak jasotzeko.

Kitapen kuota jasotzeko eskubidea dibidendoak jasotzeko eskubidearen osagarria da. Hala ere, eskubide honen nondik norakoak baltzuaren likidazioaren arabera egongo dira.

b.- Harpidetzarako edo bereganatzerako lehentasun eskubidea.

Eskubide honen xedea da bazkideari aukera ematea bere akzio/partizipazioen balio izendatuaren eta kapital sozialaren zenbatekoaren arteko proportzioa mantentzeko azken hori hazkunde baten objektu denean. Hala ere, aipatzekoa da eskubide hau ez dela eskubide absolutu bat batzarraren akordio bitartez ezabatu zein mugatu daitekeen einean.

c.- Batzarrean hitzaren bitartez eta botoarekin parte hartzeko eskubidea eta baita, honen erabakiak aurkatzeko eskubidea.

Batzarrean parte hartzeak bazkideari aukera ematen dio baltzuaren gestioan parte hartzeko eta honela administratzaileen lana fiskalizatzeko (azken hau bazkideen parte hartzearen arabera izango da).

Botoa emateko aukerari dagokionez, bazkideei ezabatu ezin den eskubide bat da, *Legeak aurreikusten dituen salbuespenak eta boturik gabeko akzio/partizipazioak salbu*, eta, printzipioz, modu proportzionalen ezartzen da akzio/partizipazioen balio izendatuaren arabera. Sozietate anonimoaren kasuan estatutuek ezarri dezakete bazkide bakoitzak izan ditzakeen botoen gehiengoa edota baltzuaren talde bereko baltzuek eman ditzaketen gehiengoak (188.3 art.). Bestalde, aipatzekoa da boto eskubidea pertsonala dela eta hortaz bazkide beraren edo honen ordezkariaren bitartez eman beharko dela.

Botu eskubidearen oinarri bezala jokatzeko badu ere Batzarretara bertaratzeko aukera eskubide bat da propioki. Orohar bertaratzea botoa ematearekin bat datorrela badiogu ere, bertaratze eskubidea aurreikusten zaie boturik ez duten edo mugatu zaien bazkideei (boturik gabeko bazkideak, berandutza egoeran daudenak). Baltzu anonimoan estatutuek ere murriztu dezakete bertaratze eskubidea akzio gutxiengo bat dutenentzat (179. art.).

Azkenik, bazkideek batzarraren erabakiak judizialki aurkatzeko eskubidea aipatu behar da. Bazkideek (betez ere txikiek eta batzarrean gehiengorik lortzen ez dutenek) defentsarako duten instrumentu garrantzitsua dela esan genezake honen bitartez beraien eskubideak babestu ditzakelako eta oro har baltzuan hartzen dituen erabakien egokitasuna bermatu dezaketelako baltzuaren defentsa eta gehiengoaren aurrean.

d.- *Informazio eskubidea.*

Administrazio organoei edozein gairi buruzko informazio edo azalpenak eskatzeko eskubidea da. Honetaz gain, eskubide honen bitartez bazkideek, besteak beste, urteko kontuen edota kapital hazkundea ematen den kasuan horien inguruko txostenen kopia bat jasotzeko eskubidea daukate. Eskubide hau estatutuen bitartez moldatu daiteke baina inoiz ez ezabatu.

2.2. Taldearen (edo gutxiengoaren) eskubideak

Kapital sozialaren %5aren titulodunek (bakarka edo bilduta) eskubide desberdinak izango dituzte:

- a.- *Batzarraren deia eskatzeko eskubidea* (168. art.).
- b.- *Aurkatu den akordio baten esekipena eskatzeko eskubidea* (PZL 727.10.art.).
- c.- *Kontu ikuskari bat izendatzeko eskubidea* (265.2. art.).
- d.- *Admnistratzaileei erantzukizuna galdatzeko eskubidea* (239.art.).

2.3. Boturik gabeko akzio/partizipazioak

Partizipazio edo akzio pribilegiadunen artean ezagunenak eta zabalduenak boturik gabekoak ditugu. Pribilegiadunak dira eskubide ekonomiko bereziak ematen dituztelako, hori bai, horren truke orokorrean ez dute botu eskubiderik edukiko. Akzio/partizipazio hauen bitartez baltzuak finantziazioa lortzen du (merkea eta egonkorra), bazkide “zaharrek” kontrola mantentzen dute eta eskuratzen dituzten bazkideek abantaila ekonomiko garrantzitsuak lortzen dituzte.

Legeak baldintza desberdinak aurreikusten dizkie sozietate anonimo eta erantzukizun mugatukoetan (98. art.). Honela, **erantzukizun mugatuko baltzuen kasuan boturik gabeko partizipazio sozialak ezin dute kapitalaren erdia ganditu; baltzu anonimoetan berriz, ezin dute desenboltsatutako kapital sozialaren erdia gainditu.**

Ohikoa izan da honelako akzioak baltzu handietan, irekietan, ematea non akziodun txikiak erakartzen diren euren parte hartzea inbertsio gisa soilik burutzeko. Hala ere, boturik gabeko akzio/partizipazioak euren titularrei benetako bazkidearen izaera ematen diete honek berekin dakarren eskubide guztiekin (botu eskubidea ezik).

Ikus ditzagun jarraian boturik gabeko akzio/partizipazioak dakartzaten abantailak. Lehenengo abantaila **estatutuek ezarritako urteko gutxiengo dibidendoa (finkoa-aldakorra) jasotzeko eskubidea** da (99. art.). Baina, azpimarratzekoa da **dibidendo bikoitza** jasotzen dela: gutxienekoa eta arrunta. Urte batean ez balego banaketa egiteko adina irabazi hurrengo bost urtetan ordaindu beharko da gutxiengo dibidendoa eta bitartean akziodunek bozkatzeko eskubidea izango dute (99.3 art.).

Bigarren abantaila kapitala murriztu behar denean izango dute bazkideek; azken kaltetuak izango dira kapitala murriztu behar bada galerak ondarea kapitalaren bi herenen azpitik utzi badute (100. art.).

Hirugarrena desegite kasuan emango da: kitapen kuota jasotzerakoan lehentasuna izango dute boturik gabeko akzio/partizipazioen titulodunak (101. art.).

Argi izan behar da bazkide hauek bazkide izateari dagozkion beste eskubide guztiak dituztela (102. art.). Beste alde batetik bai bozka dezaketela akordio batek beraien eskubideak, zuzenean naiz zeharka, kaltetzen dituenean (103. art.).

3. AKZIOA BALORE NEGOZIAGARRI BEZALA

3.1. Akzioa ordezkatzeko sistema desberdinak

Akzioak izatez igorgarriak dira. Honela, akzioak haren edukitzale legitimoari bazkide izera aintzatesten dioen bezala transakzio errez eta azkarrak burutzeko aukera ere ematen du. Transakzio horiek aurrera eramateko **akzioak ordezkatu** egin beharko dira eta hori Legearen (92. art.) esanetan **bi modutan egin daiteke: titulu bidez edo kontu idazpenen bidez**.

Titulu bidez ordezkatzan denean helburu bikoitz bati jarraitzen zaio: alde batetik, helburu frogatzaile bat dauka, izan ere, titulua izateak esan nahi du edukitzailea legitimatua dagoela baltzuan parte hartzeko; bestalde, funtzio dispositibo bat dauka onartzen baita bazkide eskubideak transmititzea

dokumentuaren zirkulazioarekin batera. Aldiz, *kontu idazpenen bidez ordezkaten denean* ordenagailu bitartez eramaten dira idazpenak eta horretarako bi baldintza eskatzen dira: lehenik, baltzuak igorpenean integratuak dauden baloren inguruko informazioa eskeintzen duen dokumentu bat egin behar du; bigarrenik, igorriko diren baloreak erregistro kontablean inskribatu behar dira, izan ere, inskribatu ezean ez dute balore higigarrien izaera izango eta titulu bidez transmititu beharko dira.

Edozein modutan ordezkaturata ere, *balore negoziagarriak* dira.

3.2. Eskualdagarritasun askearen mugak

Orain arte esandakoa kontutan hartuta, akzioen titularrek aukera daukate euren partizipazio eskubidea zirkulazioan jartzeko. Modu honetan, akzioen titularrei aukera ematen zaie baltzutik irtetzeko transmisio sinple baten bitartez. Izan ere, lortu nahi dena da baltzuaren ondarea geldirik egotea nahiz eta bertako akziodunak etengabe aldatu.

Hala ere, argitu behar da akzioen transmisioak ere izan ditzakeela zenbait muga edo murriztapen. Muga edo murriztapen horiek Legeak ezartzen ditu kasu batzuetan eta estatutoetan ere jaso daitezke, hauek dira baltzuari eragin eta obligatzen dioten bakarrak (ez dira aurkajargarriak izango itun parasozialetan, famili-protokoletan jasotzen direnak).

Azter ditzagun jarraian zeintzuk diren aipatu ditugun murrizketak eta mugak:

- **Legeak hiru kasutan ezartzen du muga:** 1) baltzua inskribatu aurretik ezin da akziorik eskualdatu (34. art.); 2) baltzuaren (Batzarraren) baimena beharko da akzioen *inter vivos* transmisiorako bazkide bat erantsitako prestazioak egitera behartu bada (88. art.); eta, 3) hainbat inbertsio atzeritarren kasuan ere mugak ezartzen dira lege berezietan (defentsa, komunikazioarekin lotutako enpresetan, e.a., erosleak atzeritarrak direnean).

- **Estatutuetan ezarritako mugak balizkoak izan daitezen beharrezkoa izango da akzio izendatuen gain ezartzea muga eta eta zehazki**

estatutuetan jasota egotea (123.1 art.). Modu honetan, estatutuetan debekurik ezartzen bada gehienez ere bi urtez egongo da (MEE 123.4 art.). Bestalde, lehenetsun eskubidea aintzatestea posible da bazkideei edota euren familiakoei... Bukatzeko, estatutuetan jaso daiteke bazkide batek bere akzioak saldu nahi baditu lehenik baltzuaren bahimena beharko duela, hori bai estatutoek zehaztu behar dute noiz dagoen justifikatua tansmisioari uko egitea (123.3 art.).

- **Bestelako mugak:** 1) baliogabeak dira akzioen transmisioa ezinezko egiten duten klausulak (123.2 art.); 2) akzio izendunen eskualdagarritasuna eman daiteke soilik (123.1 art.); 3) akziodunari balio errealak lortzeko eskubidea bermatu behar zaio (MEE 123.6 art.)

- ***Kasu berezia: mortis causa eta nahitezko eskualdaketak.***

Akzioen eskualdagarritasunari jarritako estatutu-mugak *mortis causa* eskualdaketei ere aplikagarriak dira, estatutuetan espreski horrela jaso bada. Halakoetan baltzuak akzioen eskuratzailerik bat aurkeztu behar dio oinordekoari edo, bestela, baltzuak berak akzio horiek eskuratzeko asmoa azaldu baehar du, inskripzioa eskatu den unean akzio horiek duten balioa ordainduz (124. art.).

Ikusitako erregimen bera aplikatuko da nahitaezko besterentzeetan, akzioen eskurapena exekuziozko prozedura judizial edo administratibo baten bitartez eman denean (125.art.).

4. PARTIZIPAZIOEN ESKUALDAKETA

Akzioen eskualdaketa printzipioz askea da, aldiz partizipazioena legez mugatua dago. Hau horrela da erantzukizun mugatuko sozietatea sozietate itxia delako, nahiz eta kapitalista izan, ezaugarri pertsonalistak ere baditu (mota *hibridoa* dela esaten da) eta horien artean bazkide berriak sartzeko muga dago. Partizipazioak ezin dira modu askean eskualdatu (108. art.), baina estatutuen esku geratzen da zein den eskualdaketak izango dituen

mugen definizioa. Bertan ez bada ezer esaten legearen eraentza aplikatu beharko da.

a.- Legezko araubidea

- *Inter vivos* eskualdaketa (107. art.)

Erantzukizun mugatuko baltzuetan euren estatutuek bestelakorik esaten ez duten bitartean, **librea** izango da partizipazioen *inter vivos* eskualdaketa bazkideen, ezkonkidearen, bazkideen goragoko zein beheragoko senideen edo, igortzailearen talde bereko baltzuen alde egiten denean. Bestelako kasuetan, partizipazioen eskualdaketak estatutuetan Legean ezarritako arau eta mugak errespetatu beharko ditu.

Gorago aipatutako pertsonak ez diren beste hirugarrenei eskualdatu nahi bada, partizipazio sozialen *inter vivos* eskualdaketak honako araei jarraitu beharko dio:

- a) Bere partizipazioak eskualdatu nahi dituen bazkideak idatziz jakinarazi beharko dio administrazioari partizipazioen transmisioaren inguruko informazio guztia eskeiniz (partizipazioen kopurua eta ezaugarriak, eskuratzailearen identitatea, prezioa eta gainerako baldintzak).
- b) Eskualdaketa baltzuaren onespenerarenpean geratuko da eta onepen hau Batzar Orokorraren akordio bidez adieraziko da (gehiengo sinple bidez erabakita).
- c) Eskualdaketari ezetza emateko partizipazio guztiak eskuratu nahi dituzten bazkideen edo hirugarrenen identitatea jakinarazi behar dio eskualdatzaileari notario bidez. Batzarrak erabaki dezake baita sozietateak eskuratuko dituela beste bazkide edo hirugarrenek nahi ez dituzten partizipazioak.
- d) Eragiketaren inguruko baldintza guztiak (prezioa, ordainketa modua,...) eskualdaketa burutu nahi duenak adierazitakoak eta hitzartutakoak izango dira.

e) Eskualdaketari buruzko dokumentu publikoa hilabeteko epean egiletsi behar da, sozietateak eskuratzailen identitatearen berri eman duenetik zenbatzen hasita.

f) Bazkideak partizipazio horiek eskualdatu ahal izango ditu, baltzuari adierazitako baldintzetan, baldin eta hiru hilabete igaro badira baltzuari askualdaketa asmoaren berri eman dionetik, eta horrek ez badio jakinarazi eskuratzailen identitatea.

- *Mortis causa* eskualdaketa (110. art.)

Oinordetza bidez partizipazioak jasotzen badira oinordekoak edo legatariak bazkide izaera bereganatuko du. Hala ere, estatutuek aurreikus dezakete bizirik jarraitzen duten bazkideak hildakoaren partizipazioak eskuratzeko eskubidea eta horiek interesik ez badute baltzuak berak eskuratzekoa.

- Derrigorrezko transmisioa (109. art.)

Edozein premiamendu-prozeduratan partizipazioen enbargoa dekretatzen denean, erabakia hartu duen epaileak berehala jakinarazi behar dio hori sozietateari. Errematea irmoa izan arte bazkideak edo sozietateak, horrela jaso balitz estatutuetan, subroga daitezke errematatzailearen lekuan.

b.- Borondatezko araubidea: askatasunaren mugak (108. art.)

Askatasun handia dute bazkideek legearen eraentza hau aldatzeko, baina muga batzuk ere kontutan izan behar dituzte eskualdaketa sistema marrazterakoan. Honela, **deusezak** izango dira ia askatasun osoz partizipazioen borondatezko askualdaketak *inter vivos* egintzen bidez gauzatzeko aukera ematen duten estatutu-klausulak. Deusezak dira baita partizipazio guztiak edo batzuk eskaintzen dituen bazkideari beste kopuru desberdin bat eskualdatzeko obligazioa ezartzen dioten klausulak.

Aldiz, **baliozkoak dira** partizipazio sozialen *inter vivos* eskualdaketa debekatzen duten estatutuko klausulak beti ere estatutuak bazkidei edozein unetan baltzutik irtetzeko aukera ematen badie (banantze eskubidea). Orain esandako klausula hauek estatutuetan barnebiltzeko bazkide guztien adostasuna beharko da.

Aurretiaz esandakoaz gain, estatutuek debeka dezakete partizipazio sozialen *inter vivos* eskualdaketa baltzua eratu eta handik 5 urterarte gehienez.

c.- Borondatezko eskualdaketa: klausula desberdinak

- Onesmenaren beharra: baltzuarena, bazkide baten edo batzuren, hirugarren batena.
- Bazkide guztien edo batzuen edo hirugarren baten lehentasuna partizipazioak eskuratzeko (MEE 188.2 art.).
- Partizipazioak “erreskatatzeko” eskubidea, baltzuaren, bazkideen edo hirugarrenbaten alde (azken finean kanporatze klausulak dira, MEE 188.3 art.).